

EKONOMIA

Erreformaren joko zelaia



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Pasa den urtean 61 langile hil ziren lan istripuetan, istripuen eta lan heriotzen gaur egungo zenbaketaren arabera –eztabaida luzea eskatzen duen zenbaketa, bide batez-. Patronalaren boterearen isla da gobernuek ez dietela inongo konturik eskatzen. Langileen salaketek ez dutela aldaketak behartzeko adineko indarrak. Nekez aurkitzen dugula jendartean zalaparta gutxiago sortzen duen heriotzarik. Zer pentsa ematen du neurgailua zeroan jarriz hastea berriz urtea, noiz eta Espainiako Gobernuak heriotza hauen atzean dagoen prekaritateari babes instituzionala ematea onartu berri duenean.

Lan erreforma honekin prekaritatea murriztea enpresariaren esku geratzen da berriro ere. Eta ez da gutxituko, ez diotelako halako pagotxari uko egingo. Abantaila osoa izango dute lan-baldintzak negoziatzerakoan, hitzartutakoa euren kabuz aldatzeko, langileak merke eta noiznahi kaleratzeko. Horrela ez dago prekaritatea murrizterik.

Baina horrela ziurtatzen da kapitalaren interes partikularrak gailentzea. Digitalizazioa aukera bat izan liteke lanaldiak murrizteko, lan zamatsuenak gainera kentzeko, bizi-kalitatea hobetzea helburu duten lanbide eta sektoreak indartzeko, lana hobeto antolatzeko... Erreforma honekin, aldiz, digitalizazioa lan-kostuak murrizteko aukera paregabea izango da enpresentzat. Mehatxua langileentzat.

Erreformak ezarritako joko zelaian irekiko da konfrontazio fase berria lan munduan, eta interesgarria izango da momentuko erantzuna nola antolatzen den ikustea. Baina garrantzitsuagoa da erantzunarekin zein bide hauspotuko dugun argitzea. Lortuko ote dugun, Euskal Herrian hartutako erabakiekin, harresi sendo bat eraikitzea erreformaren ondorioei aurre egiteko. Eta gai izango ote garen lan harremanak beste moduz antolatzeko bidean urratsak egitea, euskal eragile sindikal, sozial eta politikoen artean. ●

ANALISIA



Izorratu, botoak dakartzalako

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Badut zinez txertatuak ez direnen izorratzeko gogo. Bururaino aspertuko ditugu". Frantziako presidentearen hitzak dira, lehendakaritzarako berriz aurkezten denarenak. Hasi da kanpaina, eta ondoko ehun egunetarako tonua eta norabidea markatu dizkigu Macronek. COVIDari bideratuko zaio monopolioa –eta izorra daitezela zerbitzu publikoez, krisi sozioekonomikoaz, kulturaz edota ingurumenaz eztabaidatzea espero zutenak-. Bestelako guzia gorderik eta aipamenik gabe atxikitzeko estalki sendoa badu botereak; ezkerren proposamen eskasia begi-bistan uzteko gaia badu; bozka beldurretik bideratzekoa. "Etorrin terroristaren" mamua bezain emankorra izan daiteke koronabirusa. Boto-emaileak eskuinetik xarmatzeko amuzkia badu: aker pekatzailea edota barne-arerioa izendatzeak eta hauen haserrea hauspotzeak botoak dakartzate –eta hainbat hobe sua piztuz adierazten badute kexua-. Errepresioz eta nagusikeriaz "ordena" eta "bake soziala" berreskuratzeko urratsak botoak dakartzalako.

Esaldi ttipi mingarrien estrategia ezaguna da. Sarkozyk bere garaian "kaka [banlieue auzogune txioetako gazteak] karcher-arekin garbitzeko" asmoa zuen. Aurretik Chiracek "atzerritarren gaindosia" eta hauen "arrabotsa eta usaina" zituen azpimarratu. Hiruak presidente. Hiruak eskuinekoak. Hiruak zentzu guztietan pribilegiatu. Hiruak azpikoa iraintzeko axolagabekeria. Ze gauza batzuen haserre eta miseriari zukua atera nahi izatea. Ze gauza piramidaren puntatik oinarrian dagoenari tu egitearena. *Banlieue*-tako gazteak aurpegia estalirik barrikadetan behar dituen gisara, nahiko lituzke berriro ere Parisko hirigunea sutan jartzen dabiltzanak –Jaka Hori, blac block ala txertoaren kontrako... bost axola zer diren; sua piztu dezatela, besterik ez-. Hortik *Le Parisien* egunkariari eskaintako elkarrizketako iraina, Eliseoko kontseilariak aurretik irakurritakoa, zuzendutakoa eta onargarritzat jotakoa. Hots, kalkulu politiko bati segi plazaratutakoa.

Baina sua menderakaitza bihurtu daiteke. Makineria indartsuenak ukateak ez dakar automatikoki suaren kontrola. Onerako ala txarrerako. Eskuin-muturraren mehatxua erreala da, piramidearen gailurrean baita oinarrian ere. Maleruski, ezkerren muturretik, mugimendu guti sendi da. Karrikan egon behar luke ezkerrek, benetako aldaketak proposatzen. Eskuin-muturra hauspotu ez dadin. ●